

Marrodán portugaletetar olerkariaren omenezko diskoa egin du Joseba Gotzonek


► Zortzigarren grabazioa du eta ostiralean Getxon aurkeztuko da ofizialki

FELIX IBARGUTXI. DV. DONOSTIA

Joseba Gotzonek *Fotopoemak* diskoa plazaratu du, hamar kantu dakartzana, eta hamarrak Mario Angel Marrodán portugaletetar idazlearen olerkietan oinarrituak. Diskoaren aurkezpen ofiziala Algortako Getxo antzokian izango da, ostiral honetan 21:00etan, Nazioarteko Olerki Eguna baita.

Marrodán Olerki Elkartek eskatuta ekin zion lan honi Joseba Gotzonek. «Elkarte horrek esan zidan omenaldi moduko diskoa égingo al nuen», adierazi digu kantariak. Ehunka liburu idatzitakoa da Marrodán, horietako asko olerki-liburuak, eta arte-kritikari moduan ere lan handia egin da.

Diskorako olerkariaren liburu asko irakurri ditu Joseba Gotzonek: «Haren 61 liburu irakurri ditut, eta olerki motxenak aukeratu ditut, gehienak oso luzeak baitira. Gaiei ere erreparatu diet, eta gai askotarikoak hartu ditut: itsasoa, maitasuna,



Joseba Gotzon, atzo Donostian. [USOZ]

gogoeta intimoak...».

Grabazio honetarako jazz giroko goi-mailako musikari zenbaitekin elkartu da Joseba Gotzon: besteak beste, Blas Fernández (bateria), Carlos Gracia *Tato* (kontrabajua), José Luis Canal (pianoa eta organoa) eta Luis Alberto Requejo (klarinetea).

Bestalde, saiatu da erritmo desberdinak ekartzen diskora; besteak beste, pop-a, boleroa, jazz eta swing tankerako aireak daudé.

Orain arte zazpi disko zituen plazaratuak Joseba Gotzonek: *Gau hotza* (Hilargi, 1984), *Inpotentzia* (Hilargi, 1985), *Botere*

zalantzak (Hilargi, 1987), *Kalapo* (Hilargi, 1991), *Made in Ris* (Elkar, 1995), *Noegga, historias y leyendas* (Nojako Udala, 1999) eta *Nortasuna* (Keinu, 1999).

Portugaleteko Nazioarteko Zortzikote Jaialdia antolatatu izan du, eta Bizkaiko zortzikoteen historia-liburua idatzi du.